







ZTE





Bizkor hasteko gida

Produktuari buruzko segurtasun-informazioa

	Ez erabili gailua erregaia hartzen ari zarela.
	Ez erabili gailua eskuan gidatzen ari zarela.
	Gailu honek argi distiratsua edo dirdira egiten duena igor dezake.
	Aldean daramazula erabili behar baduzu, urrundu 15 mm-ra.
	Ez bota gailua sutara.
	Pieza txikiak irentsiz gero, itotzeko arriskua dago.
	Ez jarri objektu magnetikoekin kontaktuan.
	Gailu honek hots handia egin dezake.
	Saihestu muturreko tenperaturak.
	Taupada-markagailuetatik eta bestelako gailu mediko pertsonaletatik urrun izan.
	Lehor eduki, eta saiatu likidoekin kontaktuan ez jartzen.

	Itzali ezazu, ospitaleetan eta osasun-zentroetan hala egiteko eskatzen denean.
	Ez saiatu gailua desmuntatzen.
	Itzali ezazu hegazkinetan eta aireportuetan hala egiteko eskatzen denean.
	Saia zaitetz telefonoaren mende ez egoten larrialdiko komunikazioetarako.
	Leherketa-arriskua dagoen lekuetan itzalita eduki.
	Osagarri onartuak bakarrik erabili.

Ezagut ezazu zure telefonoa



Pizteko tekla

- Luze sakatu telefonoaren moduetako bat hautatzeko edo gailua itzaltzeko.
- Sakatu tekla hau modu etena aktibatzen.
- Sakatu tekla hau telefonoa aktibatzen.

Hasierako tekla

- Sakatu tekla hau edozein aplikazio edo pantailatik hasierako pantailara itzultzeko.
- Luze sakatu azkenaldian erabili dituzun aplikazioak ikusteko.

Menu-tekla

Sakatu tekla hau uneko pantailako aukeretara sartzeko.

Atzera tekla

Sakatu tekla hau aurreko orrira joateko.

Bilaketa-tekla


Sakatu tekla hau bilaketa irekitzeko.

Bolumen-tekla


Sakatu goiko tekla bolumena igotzeko eta beheko tekla bolumena jaisteko.

Hasi Aurretik


Kendu atzeko estalkia



Jarri memoria-txartela




Jarri SIM txartela




Oharra:

- SD Card Association-en marka komertzial erregistratua da microSD-ren logotipoa.
- Baliteke pakete komertzialean MicroSD txartelik ez etortzea.

Bateria instalatzea



Bateria kargatzea



Telefonoa erabiltzen duzun lehen aldian, honela kargatu behar duzu bateria:

1. Konektatu egokigailua korronte-hargune batera.
2. Konektatu kargagailua paretako korronte alternoko entxufe batera.
3. Deskonektatu kargagailua, bateria erabat kargatuta dagoenean.

Telefonoa piztea/itzaltzea

Egiaztatu SIM txartela sartuta dagoela telefono mugikorrean eta bateria kargatuta dagoela.

- Luze sakatu **pizteko tekla**, telefonoa pizteko.
- Itzali egin nahi baduzu, luze sakatu **pizteko tekla**, telefonoaren aukeretara sartzeko. Hautatu **Apagar**, eta, ondoren, ukitu **Aceptar**.

Modu etenera aldatzea

Modu honek telefonoa energia-kontsumo baxuan jartzen du, eta pantaila itzailta geratzen da. Halaber, telefonoa deskonexio-modura aldatuko da, automatikoki, telefonoa denbora-tarte jakin batean inaktibo egoten bada. Pantailako doikuntzetako **Tiempo espera pantalla** aukeraren bitartez zehazten da denbora-tartea. Sakatu **pizteko tekla** modu etena aktibatzeko.

Telefonoa aktibatzea

1. Sakatu **pizteko tekla** pantaila aktibatzeko.
2. Luze sakatu pantailaren erdian dagoen  aukera.

Oharra:

Desblokeatze-eredu bat edo PIN/pasahitz bat konfiguratu baduzu pantailarako, pantaila desblokeatzeko, eredia marrazteko edo PINa/pasahitza sartzeko eskatuko dizu.

Adostasun-Deklarazioa

Honen bidez deklaritzen dugu jarraian aipatzen den produktuak

Produktu-mota: WCDMA/GSM (GPRS) banda dualeko telefono mugikor digitala

Modelo-zenbakia: KIS

irradi eta telekomunikazioko ekipo terminalei buruzko direktiba (Europako Erkidegoko 1999/5/EE direktiba) eta bateragarritasun elektromagnetikoari buruzko direktiba (2004/108/EE) betetzen dituela. Probak eta ebaluazioa pasa dituzten laginak bezala fabrikatu diren ale guztiei aplikatzen zaie deklarazio hau.

Produktuaren adostasun-ebaluazioa (irradi eta telekomunikazioko ekipo terminalei buruzko direktibaren baldintzak) American TCB enpresak (erakundearen zenbakia: 1588) egin zuen, estandar hauen arabera:

Segurtasuna	EN 60950-1:2006/ A11:2009
Bateragarritasun elektromagnetikoa	EN 301 489-1 V1.8.1; EN 301 489-3 V1.4.1; EN 301 489-7 V1.3.1; EN 301 489-17 V2.1.1; EN 301 489-24 V1.5.1; EN 55013:2001+A2:2006; EN 55020:2007;
Irratia	EN 301 511 V9.0.2; EN 301 908-1 V4.2.1; EN 301 908-2 V4.2.1; EN 300 440-1 V1.6.1; EN 300 440-2 V1.4.1; EN 300 328 V1.7.1;
Osasuna	EN 50360:2001; EN 62311: 2008 EN 62209-1:2006; EN 62209-2:2010; EN 50332-1:2000; EN 50332-2:2003

Fabrikatzaileak du deklarazio honen ardura:

- ZTE Corporation

ZTE Plaza, Keji Road South, Hi-Tech, Industrial Park, Nanshan District, Shenzhen, Guangdong, 518057, P.R.China

Enpresaren izenean sinatzen duen pertsona baimendua:

Xu Feng, ZTE Corporation-eko Corporation Kalitate Saileko zuzendaria
Izena eta enpresan duen postua (inprentako letretan)

Shenzhen, 2012ko apirilaren 13a

Lekua eta eguna Sinadurak balio legala du

Herralde hauetan funtzionatzen du ekipo honek:				AT	BE
CY	CZ	DK	EE	FI	FR
DE	GR	HU	IE	IT	LV
LT	LU	MT	NL	PL	PT
SK	SI	ES	SE	GB	IS
LI	NO	CH	BG	RO	TR

WiFi konexioak erabiltzeari buruzko estatuko mugak

2400.0-2483.5 MHz-eko banda

Bulgaria

Arrazoia/luzkina: Baimen orokor bat behar da kanpoan eta zerbitzu publikoan erabiltzeko.

Frantzia

Murrizketa: Mesedez, ez erabili WiFi-a kanpoaldean.

Arrazoia/luzkina: Irrati-lokalizazio militarrean erabiltzeko. Azken urteotan, 2,4 GHz-eko banda araudi berrira berrantolatzen aritu dira (ez da lehengoa bezain zorrotza) egokitzeko. Berrantolaketa hori 2012rako amaitzea aurreikusten da.

Italia

Arrazoia/luzkina: Instalazioen kanpoaldean erabiltzeko, baimen orokorra behar da.

Luxemburg

Murrizketa: Batere ez

Arrazoia/luzkina: Baimen orokor bat behar da sarearen eta zerbitzuen hornidurarako (espektroarako ez).

Norvegia

Murrizketa: Ezarria.

Arrazoia/luzkina: Azpiatal hori ez da aplikatzen Ny-Ålesund-eko erdigunetik 20 km-rako eremu geografikoan.

Errusiako Federazioa

Arrazoia/luzkina: Barrualdean bakarrik erabil daiteke.

ZTE

Zhongxing Corporation, S.L.U.

Calle José Bardasano Baos, N°9, 8-C

C.P. 28016 Madrid NIF: B85227544

<http://www.zte.com.cn> mobile@zte.com.cn